VII. ATALA

## BESTE ZENBAIT

### Bilboko Portuko Agintaritza

**Bilboko Portuko Agintaritzaren ebazpena, 2023ko ekitaldirako merkataritza-zerbitzuak emateko tarifak berrikusteari buruzkoa.**

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak 2022ko abenduaren 15ean egindako bileran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen aho batez:

1. Onestea 2023ko ekitaldirako ere, orokorrean, bere horretan uztea Bilboko Portuko Agintaritzak ematen dituen merkataritza-zerbitzuengatik indarrean dauden tarifak. Hori guztia uraren eta energia elektrikoaren hornidurako tarifetan egon daitezkeen eguneraketak gorabehera, estatuko eta hornitzaileen eguneraketen portzentaje berean, eguneraketa egokiekin, egingo direnak.
2. Erabaki hori argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bilboko Portuko Agintaritzaren webgune korporatiboetan eta egoitza elektronikoan.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.1. artikuluko c) atalean xedatutakoari jarraikiz. Haren kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluan, hilabeteko (1) epean, aipatutako legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi (2) hilabeteko epean, interesdunari ebazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.m) eta 46. artikuluekin bat 8.3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta egokitzat jotzen den beste errekurtsoren bat jartzea gorabehera.

Santurtzin, 2022ko abenduaren 15ean.—Lehendakaria, Ricardo Barkala Zumelzu.—Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto

eek: BAO-2023a009-(VII-1)

SECCIÓN VII

**VARIOS**

## Autoridad Portuaria de Bilbao

**Resolución de la Autoridad Portuaria de Bilbao sobre revisión de tarifas por la prestación de servicios comerciales para el ejercicio 2023.**

En la sesión del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Bilbao celebrada el día 15 de diciembre de 2022, se adoptaron por unanimidad, entre otros, los siguientes acuerdos:

1. Aprobar el mantenimiento general para el ejercicio 2023 de las actuales tarifas por servicios comerciales prestados por la Autoridad Portuaria de Bilbao, sin perjuicio de la actualización de las tarifas por suministro de agua y energía eléctrica en el mismo porcentaje que las actualizaciones estatales y de los suministradores con las pertinentes actualizaciones.
2. Publicar el anterior acuerdo en el «Boletín Oficial de Bizkaia», en la Sede Electrónica y webs corporativas de la Autoridad Portuaria de Bilbao.

Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa a tenor de lo dispuesto en el artículo 114.1.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, puede interponerse, potestativamente, de conformidad con lo dispuesto en sus artículos 123 y 124, recurso de reposición ante el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Bilbao en el plazo de un (1) mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos (2) meses, en ambos casos a contar desde el día siguiente a su notificación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 8.3, en relación con los artículos 10.1.m) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, sin perjuicio de que se formule cualquier otro recurso que se estime procedente.

En Santurtzi, a 15 de diciembre de 2022.—El Presidente, Ricardo Barkala Zumelzu.—El Secretario, Juan Carlos Verdeal Pinto

cve: BOB-2023a009-(VII-1)